

2008KO ABENDUAREN 23AN, LEHENENGO DEIALDIAN GETXOKO UDALBATZAK EGINDAKO OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA =====	ACTA DE LA SESIÓN ORDINARIA CELEBRADA EN PRIMERA CONVOCATORIA POR EL PLENO DEL AYUNTAMIENTO DE GETXO, EL DÍA 23 DE DICIEMBRE DE 2008. =====
<u>BILDUTAKOAK</u>	<u>ASISTENTES</u>
<u>LEHENDAKARIA</u>	<u>PRESIDENTE</u>

Imanol Landa Jauregi Jn.

<u>ALKATEORDEAK</u>	<u>TENIENTES DE ALCALDE</u>
----------------------------	------------------------------------

Keltse Eiguren Alberdi (EAJ-PNV)
Joseba Arregui Martínez (EAJ-PNV)
Elena Coria Yanguas (EAJ/PNV)
Koldo Iturbe Mendilibar (EAJ-PNV)

<u>ZINEGOTZIAK</u>	<u>CONCEJALES</u>
---------------------------	--------------------------

Begoña Ezkurra Ciruelos (EAJ-PNV)
Aitor Soloeta Eraso (EAJ-PNV)
Kepa Miñambres Llona (EAJ-PNV)
Josu Loroño Goienetxe (EAJ/PNV)
Álvaro González Pérez (EAJ/PNV)
María Luisa Arrue Bergareche (P.P.)
Eduardo Andrade Aurrecochea (P.P.)
Jesús Toca Toña (P.P.)
Iñaki Gamero Delgado (P.P.)
Raquel González Díez-Andino (P.P.)
Josu Ahedo Ruiz (P.P.)
Juan Luis Eguiluz Borde (P.P.)
Jorge Grases García (P.P.)
Jone Ruiz de Eguilaz Salazar (P.P.)

Álvaro Rodríguez Ratón (P.P.)
Luis Almansa Rubio (P.S.E.-E.E.)
Ricardo Villanueva Marcos (P.S.E.-E.E.)
Mercedes Angulo Ordozgoiti (P.S.E.-E.E.)
José Luis Cámara Ricondo (P.S.E.-E.E.)
Iñaki Urkiza Arana (E.B.-B.)

<u>IDAZKARI NAGUSIA</u>	<u>SECRETARIO GENERAL</u>
--------------------------------	----------------------------------

Ignacio Javier Etxebarria Etxeita Jn.

Getxoko Udalaren udaletxeko bilkura aretoan eta alkate-udalburua Imanol Landa Jauregi jauna dela, egun horretako goizeko hamarretan, Udalaren Osoko Bilkura bildu da, lehen deialdian, ohiko bilkura egiteko. Bilkura horretara lehen adierazitako kideak joan dira eta baita Kontuhartzailea, Luis Angel Corcuera Ruiz jauna, ere.

En el Salón de Sesiones de la Casa Consistorial de Getxo y bajo la presidencia del Sr. Alcalde-Presidente, don Imanol Landa Jauregi, se reunió a las diez horas y treinta minutos de este día el Pleno del Ayuntamiento, para celebrar sesión ordinaria, en primera convocatoria, con asistencia de los corporativos expresados al margen, más el Sr. Interventor municipal don Luis Ángel Corcuera Ruiz.

Alkate jaunak, legezko kopuru nahikoa dagoela ikusita, bilkurari hasiera eman dio eta jarraian Deialdiko Aztergaien Zerrenda barruan jasota dauden gaiei heldu diete. Emaiza honakoa izan da:

El Sr. Alcalde, visto que existía número legal suficiente, declaró abierta la sesión, pasándose seguidamente a despachar los asuntos incluidos en el Orden del Día de la Convocatoria, con el resultado siguiente:

208.- 2008KO AZAROAREN 28KO BILKURA ARRUNTEKO AKTA ONESTEA.

208º.- APROBACIÓN DEL ACTA DE LA ANTERIOR SESIÓN ORDINARIA CELEBRADA EL DÍA 28 DE NOVIEMBRE DE 2.007.

Getxoko Udaleko udalbatzak 2008ko azaroaren 28an egindako osoko bilkura

Se aprobó el Acta de la anterior sesión ordinaria celebrada por el Pleno del

arrunteko akta onetsi da.

Ayuntamiento de Getxo el día 28 de noviembre de 2008.

OGASUN, EKONOMIA, GIZA
BALIABIDE ETA KONTUAK

HACIENDA, ECONOMÍA,
RECURSOS HUMANOS Y CUENTAS

209.- ALKATETZA-
UDALBURUTZAREN 6397, 6400,
6404, 6406, 6435, 6562, 6795, 6796, 6906,
6918 ETA 6938 DEKRETUEN BERRI
EMATEA. BERAIEN BIDEZ,
AURREKONTUA KREDITUEN
BIDEZ ALDATU ZEN (EKARPEN EZ-
FINALISTAK).

209º.- DACIÓN DE CUENTA DE LOS
DECRETOS DE LA ALCALDÍA-
PRESIDENCIA NÚMS. 6397, 6400,
6404, 6406, 6435, 6562, 6795, 6796, 6906,
6918 Y 6938, DE MODIFICACIÓN
PRESUPUESTARIA MEDIANTE
HABILITACIÓN DE CRÉDITO
(APORTACIONES NO FINALISTAS).

Ogasun, Ekonomia, Giza Baliabide eta Kontuen Batzordeak proposatuta, hauxe erabaki da:

A propuesta de la Comisión de Hacienda, Economía, Recursos Humanos y Cuentas, se acordó:

Kreditu gaikuntzen bidez aurrekontua aldatzeko Alkatetza-Udalburutzak eman dituen dekretu hauen jakitun geratzea:

Quedar enterados de los siguientes Decretos de la Alcaldía-Presidencia, de modificación presupuestaria mediante el uso de Habilitación de Crédito:

6397 Dekretua, 2008-11-14koa, 233.169,07 €koa.
6400 Dekretua, 2008-11-14koa, 90.000,00 €koa.
6404 Dekretua, 2008-11-14koa, 62.369,08 €koa.
6406 Dekretua, 2008-11-14koa, 32.280,00 €koa.
6435 Dekretua, 2008-11-18koa, 88.277,69 €koa.
6562 Dekretua, 2008-12-03koa, 11.948,00 €koa.
6795 Dekretua, 2008-12-03koa, 500.000,00 €koa.
6796 Dekretua, 2008-12-03koa, 15.730,00 €koa.
6906 Dekretua, 2008-12-09koa, 38.835,66 €koa.

Decreto nº 6397 de 14 de noviembre de 2008 por un importe de 233.169,07 €.
Decreto nº 6400 de 14 de noviembre de 2008 por un importe de 90.000,00 €.
Decreto nº 6404 de 14 de noviembre de 2008 por un importe de 62.369,08 €.
Decreto nº 6406 de 14 de noviembre de 2008 por un importe de 32.280,00 €.
Decreto nº 6435 de 18 de noviembre de 2008 por un importe de 88.277,69 €.
Decreto nº 6562 de 3 de diciembre de 2008 por un importe de 11.948,00 €.
Decreto nº 6795 de 3 de diciembre de 2008 por un importe de 500.000,00 €.
Decreto nº 6796 de 3 de diciembre de 2008 por un importe de 15.730,00 €.
Decreto nº 6906 de 9 de diciembre de 2008 por un importe de 38.835,66 €.

6918 Dekretua, 2008-12-09koa, 25.000,00 €koa.

6938 Dekretua, 2008-12-09koa, 218.214,80 €koa.

Decreto nº 6918 de 9 de diciembre de 2008 por un importe de 25.000,00 €.

Decreto nº 6938 de 9 de diciembre de 2008 por un importe de 218.214,80 €.

210.- ALKATETZA-UDALBURUTZAREN 6405, 6459, 6472, 6447, 6791, 6793, 6794 ETA 6923 DEKRETUEN BERRI EMATEA. BERAIEZ BIDEZ, AURREKONTUA TRANSFERENTZIEZ BIDEZ ALDATU ZEN.

Ogasun, Ekonomia, Giza Baliabide eta Kontuen Batzordeak proposatuta, hauxe erabaki da:

Transferentzien bidez aurrekontua aldatzeko Alkatetza-Udalburutzak eman dituen dekretu hauen jakitun geratzea:

6405 Dekretua, 2008-11-14koa, 100,00 €koa.

6459 Dekretua, 2008-11-19koa, 323,52 €koa.

6472 Dekretua, 2008-11-19koa, 21.000,00 €koa.

6447 Dekretua, 2008-11-25ekoa, 34.500,00 €koa.

6791 Dekretua, 2008-12-03koa, 12.000,00 €koa.

6793 Dekretua, 2008-12-03koa, 5.000,00 €koa.

6794 Dekretua, 2008-12-03koa, 13.305,60 €koa.

6923 Dekretua, 2008-12-09koa, 17.000,00 €koa.

210º.- DACIÓN DE CUENTA DE LOS DECRETOS DE LA ALCALDÍA-PRESIDENCIA NÚMS. 6405, 6459, 6472, 6447, 6791, 6793, 6794 Y 6923, DE MODIFICACIÓN PRESUPUESTARIA MEDIANTE EL USO DE TRANSFERENCIAS.

A propuesta de la Comisión de Hacienda, Economía, Recursos Humanos y Cuentas, se acordó:

Quedar enterados de los siguientes Decretos de la Alcaldía-Presidencia, de modificación presupuestaria mediante el uso de Transferencias:

Decreto nº 6405 de 14 de noviembre de 2008 por un importe de 100,00 €.

Decreto nº 6459 de 19 de noviembre de 2008 por un importe de 323,52 €.

Decreto nº 6472 de 19 de noviembre de 2008 por un importe de 21.000,00 €.

Decreto nº 6447 de 25 de noviembre de 2008 por un importe de 34.500,00 €.

Decreto nº 6791 de 3 de diciembre de 2008 por un importe de 12.000,00 €.

Decreto nº 6793 de 3 de diciembre de 2008 por un importe de 5.000,00 €.

Decreto nº 6794 de 3 de diciembre de 2008 por un importe de 13.305,60 €.

Decreto nº 6923 de 9 de diciembre de 2008 por un importe de 17.000,00 €.

211.- ALKATETZA-

211º.- DACIÓN DE CUENTA DEL

UDALBURUTZAREN 6330.
DEKRETUAREN BERRI EMATEA,
BERAREN BIDEZ, AURREKONTUA
KREDITU ERANTSIAREN BIDEZ
ALDATU ZEN.

Ogasun, Ekonomia, Giza Baliabide eta Kontuen Batzordeak proposatuta, hauxe erabaki da:

Alkatetza-Udalburutzaren 2008ko azaroaren 13ko 6330 Dekretuaren jakitun geratzea. Beraren bidez, aurrekontua aldarazi zen, kreditu gehigarriaren bidez, 18.000,00 eurotan.

212.- ALKATETZA-
UDALBURUTZAREN 6826.
DEKRETUAREN BERRI EMATEA,
BERAREN BIDEZ, AURREKONTUA
KREDITUA HANDITUZ ALDATU
ZEN.

Ogasun, Ekonomia, Giza Baliabide eta Kontuen Batzordeak proposatuta, hauxe erabaki da:

Alkatetza-Udalburutzaren 2008-12-03ko 6826 Dekretuaren jakitun geratzea. Beraren bidez, aurrekontua aldarazi zen, kreditua handituz, 105.059,64 eurotan.

213.- LAN JAKIN BATZUEN
ERABILGARRITASUN
ARRAZOIENGATIK BERARIAZKO
OSAGARRIA ALDATZEKO
PROPOSAMENA.

DECRETO DE LA ALCALDÍA-
PRESIDENCIA NÚM. 6330, DE
MODIFICACIÓN
PRESUPUESTARIA MEDIANTE
CRÉDITO ADICIONAL.

A propuesta de la Comisión de Hacienda, Economía, Recursos Humanos y Cuentas, se acordó:

Quedar enterados del Decreto de la Alcaldía-Presidencia nº 6330, de 13 de noviembre de 2008, por un importe de 18.000,00 €, de modificación presupuestaria mediante el uso de Crédito Adicional:

212º.- DACIÓN DE CUENTA DEL
DECRETO DE LA ALCALDÍA-
PRESIDENCIA NÚM. 6826, DE
MODIFICACIÓN
PRESUPUESTARIA MEDIANTE
AMPLIACIÓN DE CRÉDITO.

A propuesta de la Comisión de Hacienda, Economía, Recursos Humanos y Cuentas, se acordó:

Quedar enterados del Decreto de la Alcaldía-Presidencia nº 6826, de fecha 3-12-2008, de modificación presupuestaria mediante ampliación de crédito, por importe de 105.059,64 €.

213º.- PROPUESTA DE
MODIFICACIÓN DEL
COMPLEMENTO ESPECÍFICO POR
RAZONES DE DISPONIBILIDAD DE
DETERMINADOS PUESTOS DE

TRABAJO.

Proposamena irakurri eta gero, Toca jaunak hitz egin du. Esan duenez, Popularren taldeak aurka bozkatuko du, LPZren aldaketa zehatz bat baino egin nahi ez delako. Popularren taldeak lanpostu guztien balorazioa egitea eskatu du, eta ez aldaketa jakin batzuk besterik. Era berean, beste talde batzuk aldatu nahi diren lanpostuetako titularren egoera berean edo okerragoan daudela gaineratu du, eta horientzat ez dela inolako irtenbiderik proposatzen.

Urkiza jaunaren ustez, proposamen horrekin ez dira Udalaren beste langile batzuen antzeko egoerak konpontzen. Gainera, ez zaio gustatu berresteko proposamen gisa aurkeztu izana; izan ere, korporatiboen aukerak mugatzen dira. Hala ere, proposamenaren alde egingo dute, arazoak konpontzeko bidean aurrera egitea baita.

Erreferentziatzko proposamenari buruzko bozketa egin eta gero, honako hau izan da emaitza: EAJren eta EB/Bren aldeko 11 boto, PPren aurkako 10 boto eta PSE-EEren 4 abstentzio.

Ogasun, Ekonomia, Giza Baliabide eta Kontuen Batzordeak proposatuta, honakoa erabaki da gehiengoz:

Lehenengoa.- 2008. urteko abenduaren 11ko Negoziazio Mahaian hartutako erabakia berrestea. Berau Adierazitako lanpostuen Berariazko Osagarrian jasotako erabilgarritasunaren kontzeptuko zenbatekoa zerrendatutako zenbatekoetan

Tras dar lectura a la propuesta interviene el Sr. Toca para manifestar que el grupo Popular va a votar en contra, ya que se propone una modificación de la RPT y el grupo Popular viene reclamando una valoración global de todos los puestos de trabajo, y no retoques puntuales. Manifiesta asimismo que hay colectivos que están en situaciones similares o peores que los de los titulares de los puestos cuya modificación se propone, sin que para esas situaciones se plantee ninguna solución.

El Sr. Urkiza manifiesta que la propuesta no resuelve situaciones similares que existen en otro personal del Ayuntamiento, y que tampoco le gusta que se presente como propuesta de ratificación ya que limita las posibilidades de los corporativos, pero que, pese a todo, van a apoyar la misma porque es avanzar en la solución de los problemas.

Sometida la propuesta de referencia a votación, obtiene el siguiente resultado: 11 votos a favor del PNV y EB/B, 10 en contra del PP y 4 abstenciones del PSE-EE.

En consecuencia, y a propuesta de la Comisión de Hacienda, Economía, Recursos Humanos y Cuentas, se acordó por mayoría:

Primero.- Ratificar el Acuerdo adoptado en la Mesa de Negociación de 11 de Diciembre de 2008, relativo a incrementar la cuantía que en concepto de disponibilidad está integrada en el Complemento Específico de los puestos de trabajo que se indican en los

handitzeari buruzkoa da:

- 211 LPZ kodeko postua - Obra eta Zerbitzuen Arduraduna - KPIren igoera 2004. urteko otsailaren 1etik 2005. urteko abenduaren 31 arte: %7,6.

importes relacionados:

- Puesto código RPT 211 - Encargado de Obras y Servicios - Incremento IPC desde 1 de febrero de 2004 hasta 31 de diciembre de 2005: 7,6%.

2006. urteko erabilgarritasuneko zenbatekoa Importe Disponibilidad año 2006	%7'6ko igoera Incremento 7'6%
4.387'3 €	333'43 €

- 213 LPZ kodeko postua - Saneamenduko Arduraduna - KPIren igoera 2000. urteko azaroaren 1etik 2005. urteko abenduaren 31 arte: %18,3.

- Puesto código RPT 213 - Encargado de Saneamiento - Incremento IPC desde el 1 de noviembre de 2000 hasta el 31 de diciembre de 2005: 18,3%.

2006. urteko erabilgarritasuneko zenbatekoa Importe Disponibilidad año 2006	%18'3ko igoera Incremento 18'3%
4.387'3 €	802'88 €

- 6965 LPZ kodeko postua - Udaltzaingoko Zuzendaria - KPIren igoera 2004. urteko maiatzaren 1etik 2005. urteko abenduaren 31 arte: %5,1.

- Puesto código RPT 6965 - Director de la Policía Local - Incremento IPC desde el 1 de mayo de 2004 hasta el 31 de diciembre de 2005: 5,1%.

2006. urteko erabilgarritasuneko zenbatekoa Importe Disponibilidad año 2006	%5'1ko igoera Incremento 5,1%
4.387'3 €	223,75 €

- 440 LPZ kodeko postua - Babes Zibileko Teknikaria - KPIren igoera 2005. urteko urtarrilaren 1etik 2005. urteko abenduaren 31 arte: %4,5.

- Puesto código RPT 440 - Técnico de Protección Civil - Incremento IPC desde 1 de enero de 2005 hasta 31 de diciembre de 2005: 4,5%.

2006. urteko erabilgarritasuneko zenbatekoa	%4'5eko igoera Incremento 4'5%
---	-----------------------------------

Importe Disponibilidad año 2006	
4.387'3 €	197'42 €

• 212 LPZ kodeko postua - Uren Arduraduna - KPIren igoera 1989. urteko abuztuaren 1etik 2005. urteko abenduaren 31 arte: %86,8.

• Puesto código RPT 212 - Encargado de Aguas - Incremento IPC desde 1 de agosto de 1989 hasta 31 de diciembre de 2005: 86,8%.

2006. urteko erabilgarritasuneko zenbatekoa Importe Disponibilidad año 2006	%86'8ko igoera Incremento 86'8%
3.290'48 €	2.856'14 €

• 224 LPZ kodeko postua - Iturgin ofiziala - KPIren igoera 1989. urteko abuztuaren 1etik 2005. urteko abenduaren 31 arte: %86,8.

• Puesto código RPT 224 - Oficial Fontanero - Incremento IPC desde 1 de agosto de 1989 hasta 31 de diciembre de 2005: 86,8%.

2006. urteko erabilgarritasuneko zenbatekoa Importe Disponibilidad año 2006	%86'8ko igoera Incremento 86'8%
3.290'48 €	2.856'14 €

Bigarrena.- Ateratzen diren igoerak postu bakoitzaren Berariazko Osagarriari esleituko zaizkio, hasiera-eguna 2009. urteko urtarrilaren 1ean (2009. urterako aurreikusitako lansarien igoera burutu baino lehenago).

Segundo.- Los incrementos resultantes se asignarán al Complemento Específico de cada puesto, con efectos al día 1 de enero de 2009 (con anterioridad a la ejecución del incremento retributivo previsto para el año 2009).

HIRIGINTZA, OBRA ETA ZERBITZUAK

URBANISMO, OBRAS Y SERVICIOS

214.- GETXOKO HIRI ANTOLAKETAKO PLAN OROKORRAREN XEDAPEN ALDAKETA HASIERA BATEAN

214°.- APROBACIÓN INICIAL DE LA MODIFICACIÓN PUNTUAL DEL PLAN GENERAL DE ORDENACIÓN URBANA DE GETXO PARA EL

ONESTEA, 42-“ORMAZA”
ALDERAKO, JULIANA DEL TORO
RUIZ ANDREAK ETA BESTE
BATZUEK SUSTATUA.

ÁREA N° 42-“ORMAZA”,
PROMOVIDO POR DOÑA JULIANA
DEL TORO RUIZ Y OTROS.

Proposamena irakurri eta gero Arregi jaunak hartu du hitza. Esan duenez, proposamen hori partikularren arteko gatazka bat konpontzearen emandako epai judizial bat betetzeko egin da. Beraz, osoko bilkurari eskatu dio proposamena era horretan ulertzeko eta ez Gobernua osatzen duen taldearen proposamen politiko gisa.

Popularren taldearen izenean Gamero jaunak adierazi duenez, espediente horrek auzoko guztiei eragiten die. Popularrek Gobernu taldearen politika eta auzokoen interesak bereizi egiten dituzte eta aurkeztutako proposamen askoren alde egiteko gertu dago, baldin eta adostutakoak badira. Onartu du oposizioko taldeek ez dutela parte hartu epaiak ebatzitzeko gatazkan, eta, beraz, ez dutela Gobernu taldearen "laguntzaile" lanak egin behar. Izan ere, akatsik egon bada talde horrek egin ditu akatsok. Azaldu du Gobernu taldea ohartu egin behar dela beharrezko laguntza bilatu behar duela gaiak aurrera ateratzeko; haien ardurakoak diren gaiei dagokienez batik bat.

Luis Almansak dio ez dela bidezkoa eta ez dator bat Arregi jaunaren ikuspuntuarekin; hau da, ez du uste Plan Orokorra garatzeari dagozkion arloak erabaki politikoetatik kanpo daudenik. Gutxiengo duen Gobernu sozialisten taldeak arduratsu jokatu izana erakutsi du. Gobernu hori da, hain zuzen ere, akordioak bilatu behar

Tras darse lectura a la propuesta interviene el Sr. Arregi para indicar que la misma se justifica en cumplimentar una sentencia judicial que resuelve un conflicto entre particulares, y que por tanto solicita al Pleno que se considere la propuesta en estos términos, y no como un planteamiento político del equipo de Gobierno.

El Sr. Gamero en nombre del grupo Popular indica que este expediente como todos afecta a los vecinos, y que el grupo Popular separa la política del equipo de Gobierno de los intereses de los vecinos, y que están de acuerdo en apoyar muchas propuestas que se presenten, siempre que se consensuen. Reconoce que el expediente viene a ejecutar una sentencia en un conflicto en el que los grupos de la oposición no han participado, y que por eso no tienen que hacer el trabajo de "apoyadores" del equipo de Gobierno que es el que en todo caso ha cometido los errores. Indica al equipo de Gobierno que debe de ser consciente de buscar los apoyos necesarios para sacar adelante los temas, y sobre todo en aquéllos casos en los que se resuelven sus propias responsabilidades.

Luis Almansa indica que le parece injusto y no comparte la percepción del Sr. Arregi, de indicar que hay cuestiones de desarrollo del Plan General que son ajenas a decisiones políticas. Manifiesta que el grupo Socialista ha dado muestras de responsabilidad ante un Gobierno en minoría, que es el que debe de buscar

dituena, hari baitagokio eta ez oposizioari gehiengoak bilatzea. Daukan ardura dela-eta, sozialisten taldeak HAPO aldatzearen alde bozkatu du. Beraz, eskatzen du Gobernuak keinu hori aintzat hartzea. HAPO aldatzeko beste eskaera bat zain dute: Areetako plazari atxikitako lur-sail bat berriz kalifikatzeari buruzkoa hain zuzen ere. Proposamen hori legegintzaldi hasieran onartu zen eta Gobernu taldeak ez du ezer ere egin. Beraz, espediente hori aintzat hartzen ez den bitartean, Gobernu taldearen proposamenak ezingo dituzte bultzatu. Hartara, ez dute proposamenaren aurka egingo, baina ezta haren alde egingo ere.

Urkiza jaunak udaleko taldeei Batzorde Informatiboan eztabaidatzen diren gaiak osoko bilkurako gai-zerrendan noiz sartuko diren azaltzeko eskatu dio Arregi jaunari. Izan ere, puntu hori azaroko Batzorde Informatiboan eztabaidatu zen eta ez zen hilabete horretako osoko bilkurako gai-zerrendan sartu. Orain, alde aurretik abisatu gabe, bilera honetako gai-zerrendan sartu da. Proposamenaren alde egingo duela esan du, ez baitu aurka azaltzearen inolako arrazoirik aurkitu.

Arregi jaunak haren azalpenari ekin dio Urkiza jaunaren eskaerari erantzunez. Almansa jaunari adierazi dio espediente honek ez duela zerikusirik Santa Eugeniako lur-sailak berriz kalifikatzearekin. Era berean, adierazi du sozialisten taldeak badakiela Gobernu taldea Eusko Jaurlaritzarekin elkarrizketak izaten ari dela lur-sail horien kalifikazioa aldatzeko. Hala ere, horrek aurrera egin dezan akordio zailak behar dira eta horretan ari dira lanean. Aurreakordioak izan badira,

acuerdos, ya que a él le corresponde y no a la oposición la búsqueda de las mayorías. El grupo Socialista ha votado a favor de modificar el PGOU por responsabilidad y pide que se valore ese gesto por el equipo de Gobierno, ya que tienen pendiente una demanda de modificación del PGOU de recalificación de un terreno anexo a la plaza de Las Arenas, propuesta aprobada al inicio de la legislatura, y sobre la que el equipo de Gobierno no ha hecho absolutamente nada, y en tanto no se atiende ese expediente no pueden apoyar las propuestas del equipo de Gobierno, por lo que sin oponerse a la misma, no lo van a apoyar.

El Sr. Urkiza pide al Sr. Arregi que se informe a los diferentes grupos municipales de cuándo las cuestiones que se debaten en la Comisión Informativa van a ser incorporadas al orden del día del Pleno, ya que este punto fue debatido en la Comisión Informativa del mes de noviembre, y no se incorporó al orden del día del Pleno de dicho mes, incorporándose sin ningún aviso previo al orden del día de esta sesión. Manifiesta que apoyará la propuesta ya que no encuentra ninguna razón para oponerse a la misma.

El Sr. Arregi inicia su exposición haciéndose eco de la petición del Sr. Urkiza, e indica al Sr. Almansa que este expediente nada tiene que ver con la recalificación de los terrenos de Santa Eugenia, y que como conoce el grupo Socialista el equipo de Gobierno está en conversaciones con el Gobierno Vasco para cambiar la calificación de dichos terrenos, pero que eso exige unos acuerdos que son complejos sobre los que se está trabajando e incluso existen preacuerdos, pero que todavía deben

baina oraindik ere aurrera egin behar dute osoko bilkurara ekarri aurretik. Adierazi duenez, osoko bilkurak haren eskumeneko gaiak gobernatzen ditu eta gai horiei dagokienez, osoko bilkurak du erabakiak hartzeko ardura; beraz, osoko bilkurako kide guztiena da ardura hori.

Gamero jaunak dio Popularren taldeak uste duela osoko bilkurak ere gobernatzen duela. Hala ere, hori akordio guztietan gertatu behar da, baita mozioetan ere, eta ez soilik puntu jakin batzuetan. Amaitzeko, ebatzi nahi den arazoa Gobernu taldearen ardurakoa dela esan du.

Erreferentziazko proposamenari buruzko bozketa egin eta gero, honako hau izan da emaitza: EAJren eta EB/Bren aldeko 11 boto, eta PPren nahiz PSE-EEren 14 abstentzio.

Legezko gehiengo osoaren "quorumik" ez denez lortu, ez da onetsi Getxoko Hiri Antolaketako Plan Orokorraren aldaketa zehatza hasieran onesteko proposamena, 42-"Ormaza" aldeari dagokiona, JULIANA DEL TORO RUIZ andreak eta beste batzuek sustatua.

desarrollarse previamente a traerlos al Pleno. Manifiesta que el Pleno gobierna en materias de su competencia, y en esas materias le corresponde al Pleno la responsabilidad de decidir y por tanto a todos sus miembros.

El Sr. Gamero indica que el grupo Popular cree que el Pleno también gobierna, pero no sólo para unos determinados puntos, sino que también para todos los acuerdos, incluidas las mociones. Finaliza insistiendo en que el problema que plantea resolver es de responsabilidad del equipo de Gobierno.

Sometida la propuesta de referencia a votación, obtiene el siguiente resultado: 11 votos a favor del PNV y EB/B, y 14 abstenciones del PP y PSE-EE.

En consecuencia, al no obtener el "quórum" de la mayoría absoluta legal, no se aprobó la propuesta de aprobación inicial de la modificación puntual del Plan General de Ordenación Urbana de Getxo para el Área nº 42-"Ormaza", promovido por doña JULIANA DEL TORO RUIZ y Otros

215.- GETXOKO HIRI ANTOLAKETAKO PLAN OROKORRAREN ALDAKETA ZEHATZA HASIERA BATEAN ONESTEA, SALSIDU ETORBIDEKO 15.eko HIGIEZINERAKO, 31-"SARRIKOBASO" ALDEAN.

215°.- APROBACIÓN INICIAL DE LA MODIFICACIÓN PUNTUAL DEL PLAN GENERAL DE ORDENACIÓN URBANA DE GETXO PARA EL INMUEBLE Nº 15 DE LA AVDA. DE SALSIDU, ÁREA Nº 31-"SARRIKOBASO".

Proposamena irakurri eta gero, Iñaki Urkizak hartu du hitza. Aurka bozkatuko duela esan du, eraikina berreraikitzean lehendik dagoena baino eraikigarritasun handiagoa ematen baitu. Esan du proposamen honekin eraikin jakin baten arazoa baino ez dela konpontzen. Aitzitik, konpontzeke uzten du eraikinak ordeztan aurretik zutena baino aprobetxamendu txikiagoa izatearen arazoa. Beraz, bere ustez, irtenbidea da dagokion Plan Orokorra berrikusiz ideia orokorrak ematea. Horrez gain azaldu duenez, badaki Udalak GHAPOnartu aurretik sinatutako hitzarmen batean oinarritu dela proposamena. Beraz, proposamena ez zen plan horretan jaso. Hala ere, hartu nahi den irtenbidean gainditu egiten dira hitzarmenean adostutako aprobetxamendurako metroak.

Arregi jaunak erantzun dio esanez proposamenaren zergatia hitzarmen hori dela eta irtenbide orokorra plan orokorra berrikustearen ondorioz aurkitu beharko litzatekeela.

Erreferentziatzko proposamenari buruzko bozketa egin eta gero, honako hau izan da emaitza: EAJren aldeko 10 boto, EB/Bren aurkako boto 1 eta PPren nahiz PSE-EEren 14 abstentzio.

Legezko gehiengo osoaren "quorumik" ez denez lortu, ez da onetsi Getxoko Hiri Antolaketako Plan Orokorren xedapen aldaketa hasieran onesteko proposamena, Salsidu etorbideko 15.eko higiezinari dagokiona, 31-

Tras darse lectura a la propuesta interviene Iñaki Urkiza que manifiesta que votará en contra, ya que la propuesta otorga más edificabilidad que la existente a la hora de reconstruir el edificio, y esta propuesta resuelve específicamente la problemática de un concreto edificio, mientras que deja sin resolver la problemática general existente de que los edificios a la hora de sustituirlos cuentan con un aprovechamiento menor que el que previamente tienen consumido, por lo que estima que en todo caso debe darse una solución en planteamientos de generalidad a través de la correspondiente revisión del Plan General. Manifiesta así mismo que es consciente que la base de la propuesta está en la existencia de un Convenio firmado por el Ayuntamiento con anterioridad a la aprobación del PGOUG que no se recogió en dicho Plan, pero que la solución concreta que se plantea excede de los metros de aprovechamiento que figuran en el Convenio.

El Sr. Arregi responde en sentido de indicar que la razón de la propuesta es el Convenio al que se ha hecho referencia, y que la solución global tendría que venir en una revisión del Plan General.

Sometida la propuesta de referencia a votación, obtiene el siguiente resultado: 10 votos a favor del PNV, 1 en contra de EB/B y 14 abstenciones del PP y PSE-EE.

En consecuencia, y al no obtener el "quórum" de la mayoría absoluta legal, no se aprobó la propuesta para la aprobación inicial de la modificación puntual del Plan General de Ordenación Urbana de Getxo para el

“Sarrikobaso” aldean.

inmueble nº 15 de la Avda. de Salsidu,
Área nº 31-“Sarrikobaso”.

216.- HAPO-REN XEDAPEN ALDAKETAREN HASIERA BATEKO ONESPENA, ATAL BERRIA ERANSTEKO BERE HIRIGINTZAKO ARAUEN 7.1.13 ARTIKULUAN, BERAU “SABAIKO KOEFIZIENTEA ZENBATZEKO MODUARI” BURUZKOA DA.

216º.- APROBACIÓN INICIAL DE LA MODIFICACIÓN PUNTUAL DEL PGOUG, A FIN DE INCORPORAR UN NUEVO APARTADO EN EL ARTÍCULO 7.1.13 DE SUS NORMAS URBANÍSTICAS, RELATIVO AL “MODO DE COMPUTAR EL COEFICIENTE DE TECHO”.

Proposamena irakurri eta gero, Arregi jaunak hitz egin du. Azaldu duenez, babestutako eraikinak birgaitzea eta haien funtzionalitatea erraztu nahi dira, eta horretarako eraikigarritasuna zenbatzeko erabaki orokorra hartu nahi da.

Tras darse lectura a la propuesta interviene el Sr. Arregi para indicar que la misma se justifica en facilitar la rehabilitación y funcionalidad de los edificios protegidos, adoptándose una decisión generalizada sobre el cómputo de la edificabilidad.

Erreferentziatzko proposamenari buruzko bozketa egin eta gero, honako hau izan da emaitza: EAJren eta EB/Bren aldeko 11 boto eta PPren nahiz PSE-EEren 14 abstentzio.

Sometida la propuesta de referencia a votación, obtiene el siguiente resultado: 11 votos a favor del PNV y EB/B y 14 abstenciones del PP y PSE-EE.

Legezko gehiengo osoaren “quorumik” ez denez lortu, ez da onetsi Getxoko Hiri Antolaketako Plan Orokorraren xedapen aldaketa hasieran onesteko proposamena, Hirigintza Arauetako 7.1.13 artikuluan atal berri bat sartzeko, “sabai koefizientea zenbatzeko moduari” buruzkoa.

En consecuencia, y al no obtener el “quórum” de la mayoría absoluta legal, no se aprobó la propuesta de aprobación inicial de la modificación puntual del PGOUG, a fin de incorporar un nuevo apartado en el artículo 7.1.13 de sus Normas Urbanísticas, relativo al “Modo de computar el coeficiente de techo”.

217.- INTXORTA MENDI, S.L.k SUSTATUTAKO XEHETASUN AZTERLANA BEHIN BETIKO ONESTEA, INTXORTA KALEKO

217º.- APROBACIÓN DEFINITIVA DEL ESTUDIO DE DETALLE PROMOVIDO POR LA MERCANTIL INTXORTA MENDI, S.L. PARA

15.EKO ERAIKINA, 38-“JÁUREGUI-I” BANAKETA-ALDEAN, ORDEZKATZEKO, ETA EGIN DIREN ALEGAZIOAK EBAZTEA.

Proposamenaren berri eman eta bozketa egin ostean, EAJren eta EB/Bren 11 aldeko boto eta PPren eta PSE-EEren 14 abstentzio lortu dira.

Horrenbestez:

FERNANDO ORTEGA PLATEL jaunak, INTXORTA MENDI, S.L. enpresaren izenean eta beraren ordeztutako idazkia ikusi da. Idazkiarekin batera, xehetasun azterlan bat aurkeztu du tramitatzeko, Intxorta kaleko 15.eko eraikina (38-“Jauregi-I” banaketa aldean) ordezkatzeko.

GERTAERA: Udaleko Arautegi Subsidiarioa berrikusteko espediente egokia tramitatu ondoren, Bizkaiko Foru Aldundiko Gobernu Kontseiluaren 2002ko urtarrilaren 18ko erabakiaren bidez, Getxo udalerriko Hiri Antolamenduko Plan Orokorra behin betiko onestea xedatu zen, udal lurraldea osorik antolatzeko tresna delako. Beraren testu artikuluduna, behar ziren zuzenketak sartu ondoren, Bizkaiko Aldizkari Ofizialaren 141. zenbakian argitaratu zen, 2001.07.23koa. Getxo udalerrirako Hiri Antolamenduko Plan Orokorra, besteak beste, 38. aldea mugatu zuen, “Jauregi-I” izeneko, “hirilur” gisa sailkatuta eta “egoitzazko misto” kalifikatuta. Berarentzat sestra gaineko 0,50 m²/m²ko sabai koefizientea eta 0,47 m²/m²ko aprobetxamendu tasa

SUSTITUCIÓN DEL EDIFICIO SITO EN EL N° 15 DE LA C/INTXORTA, ÁREA DE REPARTO N° 38-“JÁUREGUI-I”, CON RESOLUCIÓN DE LAS ALEGACIONES FORMULADAS.

Dada cuenta de la propuesta y sometida a votación, obtiene 11 votos a favor del PNV y EB/B y 14 abstenciones del PP y PSE-EE.

En consecuencia y,

Visto expediente incoado con motivo del escrito presentado por D. FERNANDO ORTEGA PLATEL, en nombre y en representación de la mercantil INTXORTA MENDI, S.L., adjuntando para su tramitación Estudio de Detalle para la sustitución del edificio sito en el n° 15 de la c/ Intxorta, Área de Reparto n° 38-“Jauregi-I”;y,

RESULTANDO: Que, tramitado el oportuno expediente para la revisión de la Normativa Subsidiaria Municipal, por Acuerdo del Consejo de Gobierno de la Diputación Foral de Bizkaia, de 18 de Enero de 2.000, se dispuso la aprobación definitiva del Plan General de Ordenación Urbana del municipio de Getxo, como instrumento de ordenación integral del territorio municipal, cuyo articulado fue publicado, tras la incorporación de las necesarias correcciones, en el Boletín Oficial de Bizkaia n° 141, de 23.07.01. El Plan General de Ordenación Urbana para el municipio de Getxo delimita, entre otras, el Área n° 38, denominada “Jauregi-I”, con la clasificación de “Urbano” y la calificación de “Residencial Mixta”, para la que se fijan un Coeficiente de techo sobre rasante

ezarri ziren.

GERTAERA.- 2008-04-14ko idazkiaren bidez, FERNANDO ORTEGA PLATEL jaunak, INTXORTA MENDI, S.L. enpresaren izenean eta beraren orde, xehetasun azterlan bat aurkeztu zuen, A54 ARQUITECTOSek idatzia, Euskal Herriko Arkitektoen Elkargo Ofizialak 2008-04-11n onetsia, Intxorta kaleko 15.eko eraikina (38-“Jauregi-I” banaketa aldean) ordezkatzeko.

GERTAERA.- 2008. urteko apirilaren 23ko idazkiaren bidez, interesdunak “Kaleko Altxaketen” plano berria aurkeztu du.

GERTAERA.- 2008. urteko apirilaren 28an Udal Arkitekturak aldeko txostena egin du. Horrela bada, eraikitzeko proiektua garatutakoan, planteatutako mugetara apur bat doitu behar da.

GERTAERA.- Tokiko Gobernu Batzarrak, 2008. urteko maiatzaren 27an, hartutako 342. erabakiaren bidez, xedatu da Xehetasunen Azterlanaren hasiera bateko onspena egitea, eta espresuki adierazi zen eraikitzeko proiektua planteatutako mugetara apur bat doitu zela.

GERTAERA.- Erabaki horrek, jatorrizko espedientearekin batera, jendaurrean erakusteko tramitea bete zuen, 20 egunez. Horretarako, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean (2008-06-25eko 121. zenbakian) eta “Deia” eta “El Correo” egunkarietan (2008-06-20koak) argitaratu zen. Zuzenean ukitutako interesatuei (xehekapen azterlaneko

de 0,50 m²/m² y un aprovechamiento tipo de 0,47 m²/m²; y,

RESULTANDO.- Que, mediante escrito de 14.04.08 D. FERNANDO ORTEGA PLATEL, en nombre y en representación de la mercantil INTXORTA MENDI, S.L., presenta Estudio de Detalle para la sustitución del edificio sito en el nº 15 de la c/ Intxorta, Área de Reparto nº 38-“Jauregi-I”, redactado por A54 ARQUITECTOS, con visado del Colegio Oficial de Arquitectos Vasco-Navarro de fecha 11.04.08.; y,

RESULTANDO.- Que, mediante escrito de 23.04.08 acompaña el interesado nuevo plano de “Alzados Calle”; y,

RESULTANDO.- Que, con fecha 28.04.08 por parte de la Arquitectura Municipal, se emite el informe favorable, debiendo, una vez desarrollado el proyecto de edificación, ajustarse ligeramente a los límites planteados; y,

RESULTANDO.- Que, por acuerdo nº 342, adoptado por la Junta de Gobierno Local el 27.05.08, se dispuso la aprobación inicial del Estudio de Detalle, con expresa indicación de que el proyecto de edificación se ajustaría ligeramente a los límites planteados; y,

RESULTANDO.- Que, dicho acuerdo, junto con el expediente del que dimana, fue sometido al preceptivo trámite de información pública, por término de 20 días, mediante su publicación en el Boletín Oficial de Bizkaia nº 121, de fecha 25.06.08, y los diarios “Deia” y “El Correo”, de 20.06.08, con notificación personal a los interesados directamente

eremuan daudenak) banan-banan jakinarazi zitzairen.

GERTAERA.- Jendaurrean azaltzeko izapidean zehar alegazioak aurkeztu dituzte M^a Luisa Verdejo Rodríguez andreak eta Bernabé Jauregui jaunak. Horien gaineko txostena egin dute teknikari idazlariak 2008. urteko azaroaren 13an.

GERTAERA.- M^a Luisa Verdejo Rodríguez andreak Xehetasunen Azterlanak aipatzen duen lur-zatiaren azalera zalantzan jarri du.

GERTAERA.- Teknikari idazlariak erantzun diete M^a Luisa Verdejo Rodríguez andreaken alegazioei, eta horretarako jabetzak emandako topografiako neurketara igorri dute.

GERTAERA.- Bernabé Jauregui jaunak Xehetasun Azterlanaren hurrengo alderdi hauek zalantzan jarri ditu: eremua, sestra-lerroen zehaztugabetasuna, altuerak, sestrak neurtzeko modua eta eraikinaren solairuko 0 kota kokatzeko irizpidea eta zehaztapenak nahikoak ez izatea.

GERTAERA.- Teknikari idazlariak erantzun diete Bernabé Jauregui jaunaren alegazioei eta zalantzan jarritako kontu guztiez aritu dira.

GERTAERA.- Udal Arkitekturak txostena egin du 2008. urteko abenduaren 11n. Beraren bidez, proposatu du alegazioak ezestea. M^a Luisa Verdejo Rodríguez andreak aurkeztutakoari dagokionez, 25 8 1978 (3288/1978 zk.duna) Errege Dekretu bidez onetsitako Hirigintza Kudeatzeko Araudiaren 103. artikulua 3. atalaren edukia berreskuratu du. Horren arabera: "Finken tituluen eta

afectados comprendidos en el ámbito territorial del Estudio de Detalle; y,

RESULTANDO.- Que, durante el trámite de información pública fueron deducidas alegaciones por Dña. M^a Luisa Verdejo Rodríguez y D. Bernabé Jauregui, que fueron informadas por los técnicos redactores el 13.11.08; y,

RESULTANDO.- Que, Dña. M^a Luisa Verdejo Rodríguez cuestiona la superficie de la parcela a la que se refiere el Estudio de Detalle; y,

RESULTANDO.- Que, los técnicos redactores contestan las alegaciones de Dña. M^a Luisa Verdejo Rodríguez con remisión a la medición del topográfico facilitado por la propiedad; y,

RESULTANDO.- Que, D. Bernabé Jauregui cuestiona los siguientes aspectos del Estudio de Detalle: ámbito, indeterminación de rasantes, forma de medir las alturas, rasantes y criterio para situar la cota 0 de la planta del edificio e insuficiencia de determinaciones; y,

RESULTANDO.- Que, los técnicos redactores contestan las alegaciones de D. Bernabé Jauregui, refiriéndose a los diferentes aspectos cuestionados; y,

RESULTANDO.- Que, por la Arquitectura Municipal se emite informe el 11.12.08, proponiendo la desestimación de las alegaciones. Respecto a la formulada por Dña. M^a Luisa Verdejo Rodríguez, rescata el contenido del apartado 3º del Art. 103 del Reglamento de Gestión Urbanística, aprobado por Real Decreto 25 8 1978, núm. 3288/1978, conforme al cual: "En caso de discordancia entre los títulos y

errealitate fisikoaren artean diskordantziak egonez gero, bigarrena aurrenekoen gaintik gailenduko da birpartzelazioko espedientean". Bernabé Jauregui jaunak aurkeztutakoari dagokionez, etxadia eremuan kokatzen du (7.1.3-1. art.), aipatutako eremu horretako eraikin guztien lerroak eta sestra-lerroak finkatzea beharrezkoa izan gabe, zehazten du eraikuntzaren altuerarekin lotua kontuan hartu behar dela ez dagoela harremanetan espaloiarekin edo etorkizuneko urbanizazio publikoarekin, eta sotoaren baldintzei buruzko zehaztapenak eraikuntzaren geroko proiektura igortzen ditu.

OINARRIA: Xehetasunen azterlanak, hasiera batean onetsitakoan, jendaurrean azalduko dira, izapide horretatik ateratzen dena ikusita, bere behin betiko onespenez ebatzeko.

OINARRIA.- Udalaren Osoko Bilkura eskuduna da onespenez hau egiteko.

OINARRIA: Toki Araubidearen Oinarriak araupetzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legea; Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko EAEko ekainaren 30eko 2/2006 Legea; ekainaren 3ko 105/2008 Dekretua, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legea garatzeko premia neurriei buruzkoa; Getxoko Hiri Antolaketako Plan Orokorra; eta baterako gainerako legeria.

Hirigintza, Obra eta Zerbitzuen Batzordeak proposatuta, hauxe erabaki da gehiengoz:

LEHENENGOA.- I.- Udal Arkitekturak sinatutako txostenarekin bat etorri, M^a

la realidad física de las fincas, prevalecerá ésta sobre aquéllos en el expediente de reparcelación". Respecto a la formulada por D. Bernabé Jauregui, refiere el ámbito a la manzana (Art. 7.1.3-1º), sin que sea precisa la fijación de las alineaciones y rasantes de todos los edificios de dicho ámbito, concreta que en relación con la altura de la edificación ha de tenerse en cuenta que no se encuentra en contacto ni con la acera ni con una futura urbanización pública y remite las determinaciones relativas a las condiciones del sótano al futuro proyecto de edificación ; y,

CONSIDERANDO: Que, los estudios de detalle, una vez aprobados inicialmente, se someterán a información pública para, a la vista de lo que resulte de dicho trámite, resolver acerca de su aprobación definitiva; y,

CONSIDERANDO.- Que, el Ayuntamiento Pleno es competente para la presente aprobación.

VISTOS: Ley 7/85, de 2 de Abril, Reguladora de las Bases del Régimen Local; Ley 2/2006, de 30 de Junio, de Suelo y Urbanismo del País Vasco; Decreto 105/2008, de 3 de junio, de medidas urgentes en desarrollo de la Ley 2/2006, de 30 de junio, de Suelo y Urbanismo; Plan General de Ordenación Urbana de Getxo; y demás legislación concordante.

A propuesta de la Comisión de Urbanismo, Obras y Servicios, se acordó por mayoría:

PRIMERO.- I.- Desestimar, de conformidad con el informe suscrito

Luisa Verdejo Rodríguez andreak eta Bernabé Jauregui jaunak Tokiko Gobernu Batzarrak 2008. urteko maiatzaren 27an hartutako 342. erabakiaren aurka aurkeztutako alegazioak ezestea. Erabaki horren bidez xedatu da Intxorta kaleko 15 zenbakian ("Jauregi-I"-38. Banaketa Aldea) dagoen eraikina ordezkatzeko aurkeztutako Xehetasunen Azterlana hasiera batean onestea.

II.- FERNANDO ORTEGA PLATEL jaunak, INTXORTA MENDI, S.L. enpresaren izenean eta beraren ordezkari gisa, aurkeztutako xehetasun azterlana behin betiko onestea. Azterlana Intxorta kaleko 15.eko eraikina, 38-"Jauregi-I" banaketa aldean dagoena, ordezkatzeko da. A54 ARQUITECTOSek idatzi du eta Euskal Herriko Arkitektoen Elkargo Ofizialak onetsi zuen 2008-04-11n, eta "kaleko altxatuak" planoan, 2008-04-23an onetsia. Hasierako onespenean azaldutako ñabardurak kontuan izan behar dira.

III.- Erabaki hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

IV.- Interesatuei jakinaraziko zaie, jarri ditzaketan errekursoak adieraziz. Alegazioen ebazpenaren oinarri den txostena bidaliko zaie alegazio egileei.

BIGARRENA.- Alkatetza-Udalburutzari ahalmena emango zaio erabaki hauek burutzeko behar diren ebazpenak eman ditzan.

por la Arquitectura Municipal, las alegaciones deducidas por Dña. M^a Luisa Verdejo Rodríguez y D. Bernabé Jauregui frente al acuerdo n^o 342, adoptado por la Junta de Gobierno Local el 27.05.08, por el que se dispone la aprobación inicial del Estudio de Detalle presentado para la sustitución del edificio sito en el n^o 15 de la c/ Intxorta, Área de Reparto n^o 38-"Jauregi-I".

II.- Aprobar, con carácter definitivo, el Estudio de Detalle presentado por D. FERNANDO ORTEGA PLATEL, en nombre y en representación de la mercantil INTXORTA MENDI, S.L., para la sustitución del edificio sito en el n^o 15 de la c/ Intxorta, Área de Reparto n^o 38-"Jauregi-I", redactado por A54 ARQUITECTOS, con visado del Colegio Oficial de Arquitectos Vasco-Navarro de fecha 11.04.08 y plano de "Alzados Calle" presentado el 23.04.08, debiendo tener en cuenta las matizaciones apuntadas a la aprobación inicial.

III.- Publicar este acuerdo, en el Boletín Oficial de Bizkaia.

IV.- Notificarlo a los interesados con indicación de los recursos procedentes, debiéndose dar traslado a los alegantes del informe en el que se sustenta la resolución de alegaciones.

SEGUNDO.- Facultar a la Alcaldía Presidencia para la adopción de cuantas resoluciones sean necesarias para la ejecución de estos acuerdos.

**218.- GETXO ANTZOKIAREN I-
"INDUSKETA" FASEA BURUTZEKO**

**218º.- APROBACIÓN DEL
PROYECTO DE EJECUCIÓN DE LA**

PROIEKTUA ONESTEA, ETA
KONTRATAZIO ESPEDIENTEA
HASTEA.

Proposamena irakurri eta gero Luis Almansa hasi da hitz egiten. Esan duenez, sozialisten taldeak ez du proposamenaren alde egingo. Espediente honi dagokionez, alkateak erabateko mendetasuna eskatu du eta irregulartasunez josita dagoen prozedura da. Azaldu du Alderdi Sozialista Getxo Antzokia bezalako kultura ekipamendua egitearen alde dagoela eta horren erakusle dela Espainiako gobernuak proiektu horren finantzaketan bost milioi euroko inbertsioarekin parte hartzea. Hala ere, talde hori ez dago gertu espedienteak aurrera egin dezan, irregulartasun ugari daudenean. Adierazi duenez, Getxoko EAJk ez du irakasgaia ikasi eta Eusko Jaurlaritzak Guggenheim eta Balenciaga Museotan sortutako iskanbilen bidetik doa. Izan ere, xehetasun azterlanik ez egotea irregulartasunez beterik dagoen kudeaketaren izebergaren punta da. Azaldu du proiektuak ez dituela gutxieneko legezko baldintzak betetzen, eta, gainera, ez dagoela xehetasun azterlanik. Proiektuaren xedea da San Nikolas plaza zulatu eta bizilagunentzat nahiz Getxo Antzokirako baliagarria den parkinga egitea. Hala ere, ezin da izapidetu, aldeztu aurretik ez baita eraikinaren oinarritzko gauzatze proiektua egin, eta espedientearen ez baitira azaltzen hirigintzako legedia betetzeari dagozkion txosten teknikoak. Era berean, proiektua ikus-onetsi gabe dagoela salatu du, eta baita Udalak herritarrei eskatzen dizkien hirigintzako baldintza guztiak betetzen ez dituela ere. Esan duenez, Alderdi

FASE I-“EXCAVACIÓN”, DEL
GETXO ANTZOKIA; E INICIO DEL
EXPEDIENTE DE CONTRATACIÓN.

Tras darse lectura a la propuesta interviene Luis Almansa para indicar que el grupo Socialista no va a apoyar la propuesta. Manifiesta que el Alcalde ha exigido a la oposición una sumisión ciega respecto a este expediente cuando está plagado de irregularidades procedimentales. Indica que el grupo Socialista apoya la construcción de un equipamiento cultural como el Getxo Antzokia y prueba de ello es que el Gobierno de España está financiando dicha inversión con un importe de cinco millones de euros, pero que no está dispuesto a avanzar en el expediente cuando concurren un cúmulo de irregularidades en el mismo. Indica que el PNV de Getxo no ha aprendido la lección, y sigue la senda del Gobierno Vasco en los escándalos del Guggenheim y el Museo Balenciaga, ya que la falta de un estudio de detalle es la punta del iceberg de una gestión llena de irregularidades. Manifiesta que el proyecto carece de los mínimos requisitos legales, además de la falta de estudio de detalle. El proyecto plantea excavar la Plaza de San Nikolas para construir un parking que serviría a residentes y al Getxo Antzokia, pero no puede tramitarse ya que no está desarrollado previamente el proyecto básico de ejecución de la edificación y no figuran en el expediente los informes técnicos de cumplimiento de la legalidad urbanística. Así mismo denuncia que el proyecto no está visado y que el Ayuntamiento se salta todos los requisitos que exige a los ciudadanos cuando actúa en ámbitos urbanísticos. Indica que el grupo

Sozialista oraindik ere zur eta lur dago eta jarduera hau lardaskeria da; jarduera horrekin alkateak agintzailearen jarrera islatzen du eta Udala eta Getxoko udalerrria batzokitzat hartzen ditu. Horrez gain, maila politiko eskasa eta ikuspegirik eza daude Gobernu taldean. Beraz, udalerrirako oinarrizkoa den proiektua seriooki kaltetzeko mehatxua dago. Faltan botatzen du San Nikolas plazako xehetasunezko garapena eta Getxo Antzokia ingurune horretan nola sartuko den argitzea. Beraz, xehetasun azterlana eskatu du; gainera, azterlan horrekin, herritarrek inguruneke etorkizuna baldintzatzen duen proiektuaren berri izateko aukera ere edukiko lukete. Era berean, herritarren parte-hartzea ekarriko luke, eta horrek udaleko taldeen arteko adostasuna eta talde horiek herritarrekin dutena ekarriko luke. Amaitzeko, kultur ekipamendua eraikitzearen alde daudela azaldu du. Horren erakusle da Estatuko gobernu sozialistak emandako bost milioi euroko diru-laguntza. Hala ere, ez daude prest irregulartasunak onartzeko eta herritarrei parte har dezaten ukatzeko.

Gamero jaunak puntu hau gai-zerrendatik kentzeko eskatu du talde popularraren izenean. Izan ere, oso gai garrantzitsua da, eta arlo juridikoan sortu den ziurtasun eza ikusita, proiektua aztertzeko izan duten hamar eguneko epea ez zaio nahikoa iruditu. Beraz, zentzuzkoa iruditzen zaio eskatzen duena. Gaia mahai gainean uztea ez zaio kalte eta atzerapen garrantzitsua iruditzen. Gainera, gogorarazi du talde popularra behar den guztietan alde egon dela proiektu honetan.

Socialista no sale de su perplejidad y esta actuación es una chapuza que apunta a la actitud prepotente del Alcalde que considera al Ayuntamiento y al municipio de Getxo como un batzoki. Indica que existe una falta de visión y escasa talla política en el equipo de Gobierno, circunstancias que amenazan con perjudicar seriamente un proyecto fundamental del municipio. Echa en falta un desarrollo detallado de la Plaza de San Nikolas y del encaje del Getxo Antzokia en su entorno, por lo que reclama el estudio de detalle que además posibilitaría a la ciudadanía conocer dicho proyecto que condiciona el futuro de esa zona, a la vez que abriría la participación ciudadana lo que posibilitaría el consenso entre los grupos municipales y de éstos con la ciudadanía. Finaliza insistiendo que apoyan la construcción del equipamiento cultural y que prueba de ello es la subvención del Gobierno Socialista del Estado de cinco millones de euros, pero que no están dispuestos a tolerar irregularidades y a hurtar la participación ciudadana.

El Sr. Gamero en nombre del grupo Popular pide la retirada del punto del orden del día, ya que se trata de un tema muy importante, y ante las inseguridades jurídicas que se han suscitado y que solamente han dispuesto de diez días para examinar el proyecto, le parece prudente lo que solicita. Manifiesta que dejar sobre la Mesa no estima que suponga un quebranto y retraso importante, y que recuerda que se trata de un proyecto al que el grupo Popular ha venido apoyando en todas las ocasiones necesarias. El Sr. Alcalde agradece el tono de la intervención del Sr. Gamero,

Alkate jaunak eskertu egin du Gamero jaunak parte hartzean izandako tonua, baina gaia gai-zerrendatik ez du kenduko. Hirigintzako zinegotziak azalduko du zergatik.

Urkiza jaunak esan du proiektu hau aspalditik datorrela eta alde aurretik zenbait ekintza egin direla, hala nola orubeak erostea, hirigintzako aldaketak etab. Bere ustez, xehetasun azterlanari buruzko zalantza juridikoek maldatik gora eraikitakoari eragiten diote. Hau da, proposamenean adierazitakoari, hots, maldatik behekoari ez dio eragiten. Onartu du ez dagoela behin betiko proiekturik ingurunean nola geratuko den erakusten duenik. Beraz, alkateari eskatu dio publikoki konpromisoa har dezala Getxo Antzokia eraikitzeko proiektua eta inguruko jarduerak osoko bilkuran eztabaidatzeko. Amaitzeko, esan du proposamenaren alde bozkatuko duela, zultzeko lanek irauten duten epean, 22 hilabetean, behar adina denbora dagoelako xehetasun azterlanari dagozkion zalantza juridikoak argitzeko.

Arregi jaunak Almansa jaunari esan dio deskalifikazio larriak esan dizkiela Gobernu taldeari, baina ez duela bat ere hitz egin osoko bilkurari proposatutako proiektuari buruz. Azaldu du osoko bilkurak behin baino gehiagotan onartu dituela Getxo Antzokia egiteko Hiri Antolamenduko Plan Orokorreko aldaketak. Esan duenez, talde guztiek onetsitako aldaketak izan dira, eta aurkezten den ekintza maldan beherakoa da, parking bat egiteko. Gainera, Udaleko taldeek eskatutako parkinga ere bada. Proiektu zaila dela onartu du, eta lehen aldian parkinga egiteko zulaketa baino egingo ez dela. Esan du espedientea osorik dagoela eta

pero manifiesta que no va a retirar el punto del orden del día por las razones que explicará el concejal de Urbanismo.

El Sr. Urkiza indica que este proyecto viene de lejos, y que se han dado actuaciones previas como compra de solares, modificaciones urbanísticas, etc. Entiende que las dudas jurídicas sobre la necesidad del estudio de detalle sólo afectarían en todo caso a aquello que se edifique por encima de la rasante, y no a lo que se plantea en la propuesta que es bajo la rasante. Reconoce la inexistencia de un proyecto definitivo de cómo va a quedar en el entorno, y pide al Alcalde que se comprometa públicamente a que el proyecto de construcción del Getxo Antzokia y las actuaciones del entorno sean tratadas por el Pleno. Finaliza manifestando que va a apoyar la propuesta, ya que en el transcurso de las obras de la excavación que suponen 22 meses, hay plazo suficiente para dilucidar todas las cuestiones jurídicas relativas al estudio de detalle.

